Astigarragako Udala
Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

## OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Bilera- zenbakia:** 2025ICGO0018
**Eguna:** 2025-10-29
**Ordua:** 10:45 -10:55
**Tokia:** Alkatetza

**Bertaratuak**
- Xabier Urdangarin Lasa ........................................ Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ........................................ Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ........................................ Astigarragako EH Bildu

**Bertaratu ez direnak**
- Maria Otaegi Velez ........................................ Astigarragako EAJ- PNV
- Patxi Suarez Perez ........................................ Udal talde euskal sozialistak
- 

**Idazkaria**
- Kontxi Urdampilleta Santamaria

**Aztergaiak**

1.- 2025eko urriaren 28ko akta onartzea.
2.- Norberto almandozplazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzea.
3.- Informazio, galdera eta eskariak.

**Esan- eginak eta erabakiak**

**1.- 2025eko urriaren 28ko akta onartzea.**

Aktaren onarpena mahai gainean utzi da, bezperako bilera 19:54ean bukatu zenez, udal idazkariak bukatu berri duenez, ez duelako denborarik izan kideei bilera aurretik bidaltzeko.

**2.- Norberto almandozplazako azoka txikirako estalki bizia eraikitzea.**

Alkateak azaldu du goizean egindako kontratazio mahaiak erabaki duenez lizitaziora epez kanpo aurkeztutako eskaintzak ez onartzea, alkatearen dekretuz ebatzi dela kontratazio-espedientea hutsik jotzea, eta bigarren bat jarri dela martxan, eta udal teknikariek proposatu dutela horretan obra-kontratu eta administrazio-baldintzen agiri berak erabiltzea. Gaineratu du udal-idazkariak eta kontuhartzaileak egin dituztela legeak eskatzen dituen txostenak, eta horrekin kontratazi-espedientea osatuta dagoela.

Jarraian, akordio-proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena*.-** Obrak kontratatzeko espediente berrian, hutsik geratu den kontratazio-espedienterako onartutako obra-proiektua eta administrazio-baldintzen agiria erabiltzea.

**Bigarrena.-** Kontratazio espediente berria onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

**3.- Informazio, galdera eta eskariak**

Ez da egon.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2025eko urriaren 29an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal- idazkaria